

SAIZARBITORIAREN “EGUNERO HASTEN DELAKO” ETA HEMINGWAYREN “HILLS LIKE WHITE ELEPHANTS”

Ernest Hemingway ezaguna da bere eleberriengatik. Besteak beste, horiengatik eman zioten Nobel Saria. Batez ere *The Old Man and the Sea* txalotua izan zen munduko lau hegaletan. Film bat ere egina da eleberri horren gainean.

Halere, maiz ohartu naiz Estatu Batuetan askok maiteago dituztela haren istorio laburrak (*short stories*) eleberri luzeak baino. New Yorkeko Fordham Universityn udan egin ditudan literatura ikastaroetan garbi ikusi izan dut bai irakasleek eta bai ikasle askok ez zutela ezkututzen Hemingwayen istorio laburrentzat zuten estimazioa. Gutxi dira “The Killers” edo “The Snows of Kilimanjaro” irakurri ez dituztenak. Amerikarrek esaten didatenez, Hemingwayren literatura lana oso lotua ibili da bere bizitzari. Nolabait ere literatura bezain jakingarriak izan dira haren gorabehera eta joan-etorriak. Orain, urteak joan hala, haren bizitzak ez du horrenbesteko pisurik eta kritikariak haren idaztearen merituei bakarrik begiratzen diete. Hemingwayek istorio bilduma bat baino gehiago idatzi zuen. Behar bada estimatuena bigarrena da, *Men Without Women*. Bilduma honetan aurkituko duzu lau orrialdeko “Hills Like White Elephants”. 1926an, Parisen zegoela *The Sun Also Rises* argitaratu eta hurrengo urtean (1927) idatzi zuen istorio hau. Argitara orduko laudorio handiak egin zizkioten Parisen zeuden amerikar intelektualek eta Estatu Batuetan kritika oso onak jaso zituen.

Estatu Batuetan "Hills Like White Elephants" behin eta berriz agertu da Short Stories antologietan eta beti eredutzat ezarria (New Yorkean erosi eta orain neure begien aurrean ditudan antologiotan aurkituko duzu: Laurence Perrine: *Literature, Structure, Sound and Sense*. Harcourt, New York, 1975), Winkler A.C. *From Reading, Writing*, Harcourt, New York, 1988, Cassil, R.V.: *The Norton Anthology of Short Fiction*, Norton & Company, New York, 1978 ...) Kontakizun honetan Hemingwayren prosaren estiloa horren famatua egin duten ezaugarriak ikus litezke: esaldi lehorrak, objektiboak, indartsuak, izenlagun gutxi eta gauzak zuzen esan gabe uzten dituen elkarrizketa bizia. Kontakizuna ia osorik gizaseme batek neskatxa batekin duen elkarrizketaren bidez esana dago. Espainiako geltoki baten daude trenaren zain. "The hills across the valley of the Ebro" dira kontakizunaren aurreneko hitzak. Hizketa aurreratu hala, garbi azaltzen da neskatxa haurdun dagoela eta gizasemeak neskatxak haurra galtzea nahi duela, abortatzea. Ez dute halere sekula "abortion" hitza erabiltzen, "it" baizik. Elkarrizketaren bidez mintzatzaileen nortasuna ere agertzen da. Halere, aldez bien arteko harremanak ezkutuan gelditzen dira. Kontakizunaren bukaeran ez dakigu ziur zein erabaki hartu duten edo zer gertatzen zaion geltokian dagoen bikoteari. Urte batzuk igaro eta Ramon Sazarbitoriak antzeko gaia jorratuko du bere *Egunero hasten delako* (1969) eleberri entzutetsuan. Aldi hartan Suizako Friburgon ibilia zen Sazarbitoria, unibertsitatean ikasten eta ni ere bai. Behin edo musean elkarrekin jokatu genuen. Sazarbitoriaren eleberria ere treneko geltokian hasten da eta mutil eta neska bat elkarrekin ikusten ditugu. Hasieran batez ere, elkarrizketaren bidez baino bakar hizketaren bidez jakingo dugu gertakizunaren mamia zein den. Hemen ere neskatxa bat haur galtzekotan dago. Eleberria denez gero, ordea, kontakizuna askoz luzeagoa da, pertsonaien bizitzaren gorabehera nahikorik jakingo dugu eta azkenean neskatxak zer egingen duen ere bai. Batez ere Sazarbitoriak erabili duen teknika-rengatik goraiatua izan da eleberri hau. Bakar hizketek, flash-

back ugariak, ikuspuntua aldatzeak eta kontakizunaren plano ezberdinek berritasun handia ekarri zuten euskal eleberrigintzan. Zuzen esan ohi da gaietan Txillardegi izan zela bide berriak urratu zituena eta idatz moldeetan Saizarbitoria.

Gotzon Garate
Deustu Unibertsitatetik